

AQUARIUMERA IRTEERA

Ikasturte amaiera iristear dago eta eguraldi onarekin batera irteerak egiten hasi gara urtero bezala. Oraingoan eta ohi den bezala Donostira hurbildu gara. Aquariumera hain zuzen ere.

Bi urteko bost talde egonda bi txandetan joan gara. Lehenengo taldea ostegunean eta ibilbide luzea (Alderdi ederretik kaian barrena) egin arren primeran moldatu ziren. Beste behin ere fundamentu galanta erakutsi zuten gure neska mutilek. Bigarren taldea, ostiral eguzkitsu batean abiatu ginen Donostiaruntz. Talde hau alperragoa dela eta Aquariumeko ateraino hurbildu zen autobusa. Hau kuadrila.....

Abentura autobusa hartutakoan hasi zen. Hango oihu,algara eta emozioa! Berehala iritsi ginen Donostiara Urumean barrena. Hau poza eta urduritasuna autobusetik jeistean.....

Badator, badator....marrazoa. A ze aho eta hortz zorrotzak! Begira Manta arraia, gure gainetik hegan datorrela dirudi..... ikusi ikusi dortoka.... Hara Nemo arrain koloretsua. Zer ari zara hor urpekari jauna?? Erne ibili marrazoa atzean duzu.... aurki konturatu ginen janaria ematen ari zela arrainei. Tunelean sentsazio berria bizitu genuen etzanda jarri eta goruntz begiratzean. Arrain guztiak gure gainetik igerian.... ala...

Ederki pasa genuen eta ziur denbora luzean gogoratuko dugula lagunekin bizitutako txangoa. Zein ote hurrengoa ?? Irrikitan gaude!!!!!!

Mila esker gure irakasle eta guraso jator eta pazientzia handikoei!!

2 urtekoen irakasleak